

BERMEOKO UDALAK, IBILGAILUAK OINEZKO GUNERA SARTZEKO BAIMENEN EGUNERATZE PROZESUA HASI DU

Udalak, ordenantzaren arabera, urte birik behin oinezko guneko baimen guztien eguneratze prozesua egin behar du.

Eguneratze prozesua, baldintza guztiak betetzen direla adierazten duen zinpeko aitorten bidez, egin behar da eta bi bide egongo dira

Berhaz bulegoan aurkeztuta

Egoitza elektronikoaren bitartez: [Egin klik eta hasi eguneratzea](#)

Prozesu hau **ABENDUAREN 31an** amaituko da eguerdiko 12:00etan.

Eguneratzea onartzen bada, baimena, 2022ko abenduaren 31ra arte indarrean egongo da.

Eguneratze prozesua egiten ez duten pertsonak, **2022ko URTARRILAREN 1ETIK AURRERA EZ DUTE IBILGAILUA ALDE ZAHARRERA SARTZEKO BAIMENIK IZANGO.**

Informazio gehiago behar izanez gero, deitu, mesedez, 010 telefonora.

BAIMEN MOTAK HAUEK DITUZTEN ERABILTZAILEEK EGIN BEHAR DUTE EGUNERAKETA:



ALDE ZAHARREAN BIZI NAZ

Baimena lortzeko alde zaharrear erroldatuta egon behar naiz? **BAI** Zenbat ibilgailu baimendu ditzaket? **BI**

Ibilgailu horiek alde zaharreko helbide horretan agertu behar dira udal erroldan? **BAI** Zenbat aldiz sartu naiteke? **BEHAR BESTE**

Zenbat denbora daukat zama lanetarako? **30 MINUTU**

Alde zaharrear erroldatuta dauden **65 URTETIK GORAKOAK, MENPEKOTASUN EGOERAN EDO GAIXORIK daudenak: Ibilgailu baimendurik ez duten bitartean, beste pertsona baten ibilgailua baimendu dezakete Alde Zaharrear erroldatuta egon ez arren, **gehienez baimen bi.***



ALDE ZAHARREAN GARAJE BAT DUT:

Baimena lortzeko alde zaharrear erroldatuta egon behar naiz? **EZ** Zenbat ibilgailu baimendu ditzaket? **KOTXE BI eta motor bat**

Ibilgailu horiek alde zaharreko helbide horretan agertu behar dira udal erroldan? **EZ** Zenbat aldiz sartu naiteke? **BEHAR BESTE**

Zenbat denbora daukat alde zaharrear egoteko? **Sartu eta irteteko behar duzuna.**



HERRIKO GREMIO EDO MERKATARIA NAZ:

Zenbat ibilgailu baimendu ditzaket? **BI**

Ibilgailu horiek alde zaharreko helbide horretan agertu behar dira udal erroldan? **EZ** Zenbat aldiz sartu naiteke? **BEHAR BESTE**

Zenbat denbora daukat zama lanetarako? **30 MINUTU** **lanaren arabera aztergai*

**Gremioen ibilgailuak enpresen errotulazioa izan beharko dute.*

**HERRITIK KANPOKO ENPRESEK obra baimena eskatzerakoan, erabiliko dituzten ibilgailuak adierazi beharko dituzte.*



BIGARREN BIZITETXEA DAUKAT ALDE ZAHARREAN:

Baimena lortzeko alde zaharrear erroldatuta egon behar naiz? **EZ** Zenbat ibilgailu baimendu ditzaket? **KOTXE bakarra**

Ibilgailu horiek alde zaharreko helbide horretan agertu behar dira udal erroldan? **EZ** Zenbat aldiz sartu naiteke? **BEHAR BESTE**

Zenbat denbora daukat zama lanetarako? **30 MINUTU**

- **ASTELEHENETIK ZAPATURA, GOIZEKO 8:00ETATIK 13:00TARA** zamaketa lanak egiteko, Alde Zaharrera **SARTU DAITEKE**, baimenduta egon zein ez.
- **BEHARRIZAN ZEHATZEN kasuan** Udalak behin behineko baimenak igortzen ditu.